

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Sestaoko Udala****Sestaoko Udalaren diru-laguntzak emateko deialdia, kirolari eta kirol elkarteei bideratuta, 2019.urtean eta 2018/2019.**

Kirol denboraldian kirol jarduerak burutzeko. 2019ko uztailaren 3ko Tokiko Gobernu Batzarraren Erabakia. Honen bidez, diru-laguntzak emateko deialdi publikoa egiten da, Sestaoko kirolari eta kirol elkarteei bideratuta, 2019. urtean eta 2018/2019. kirol denboraldian kirol jarduerak burutzeko.

«Sestaoko Udalak diru-laguntzak izapidetu eta emateko Udal Ordenantzak 7.1. artikuluan xedatutakoarekin bat eta Gazteria eta Kirolak Informazio Batzordeak egindako proposamenaren arabera, Tokiko Gobernu Batzar honek ondokoa erabaki du:

*Lehenengoa:* 2019 ekitaldian eta 2018/2019 kirol denboraldian kirol alorrean jarduerak garatzeko, Sestaoko Udalak emango dituen diru-laguntzetarako deialdi publikoa onartzea. Deialdia Sestaoko Udalak diru-laguntzak izapidetzeko eta emateko udal-araudiari jarraiki ebatziko da eta, bereziki, proposamen honekin batera doan dokumentu erantzian ezarritako baldintzei jarraiki.

*Bigarrena:* 2019 edo 2018/2019 ekitaldian kirol-arloan jarduerak egiteko 38.500 euroko diru-kopuru onartzea.

*Hirugarrena:* Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko izapideak egitea, NDB argitaratuz Sestaoko udaletxean elektronikoki bideratu ahal bada eta Udaleko Kontuhartzaileari nahiz Diruzainari jakinaraztea.»

Sestaon, 2019ko uztailaren 9an. — Alkatea, Josu Bergara López

**Lehenengoa. — Helburua eta xedea**

1. Diru-laguntzei buruzko deialdi honen xedea eta helburua kirolaren eremuan Sestaoko Udalaren esku-hartzea osatu edota ordezkatzan duten programak eta jarduerak sustatu nahiz garatzea da.

Deialdiaren helburua eskusiboki erakunde desberdinekin lankidetzan ekonomikoaren bitartez zehazten da, horiek diruz lagun daitezkeen jarduerak garatzen badituzte. Xede horrez, diru-laguntza ekonomikoak ematen dira, beraz, ez da honen helburua jarduerak egiteko udal-lokalak lagatzea.

2. Programak eta jarduerak irabazi-asmorik gabe egingo dira eta garapen-esparru gisa Sestaoko udalerrira izango dute. Bestela, onuradunak Sestaoko udalerrian erroldatutako pertsonak izango dira. Horrez gain, 2019. ekitaldian edo 2018/2019 kirol-denboraldian garatuko dira.

**Bigarrena. — Diruz lagun daitezkeen erakundeak eta pertsonak**

1. Diruz lagunduko dira kirol-jarduerak, kirol-elkarteek sozietatearen egoitza nagusia Sestaon badute edo udalerrian bizi diren kirolariak badira.

2. Sestaoko Udalak diru-laguntzak emateko udal-ordenantzaren 7.d artikuluan xedatutakoarekin bat, deialdi honen babesean emandako diru-laguntzak hainbanaketaren araubidean esleituko dira.

3. Hainbanaketaren araubidearen ondorioz, eskatzaileek deialdi honetan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte, bosgarren artikuluan xedatutako irizpideak aplikatuko zaizkie eta deialdirako finkatutako aurrekontu-horniduraren guztizko zenbatekotik dagokien zati proportzionala esleituko zaie.

**Hirugarrena. — Eman beharreko diru-laguntzen zenbatekoak**

1. Diru-laguntzarako diruz lagun daitezkeen jarduerak egiteko gastu guztiak kontuan hartuko dira.

2. Hala eta guztiz ere, ez dute diru-laguntzarik jasoko honakoek:

- a) Diru-laguntzaren erakunde onuradunen berezko langileen ordainsari eta gizarte segurantzaren kontzeptuengatik gastuek.
- b) Ondasun higiezinak erosteko direnek.
- c) Altzari edo ekipamendu teknikoak erosteko direnek, Sestaoko Udalaren iritziz, diruz lagunduko den jarduerarekiko ohiz kanpoko kostua badute eta, nolana ere, altzariak edo ekipamendua erostea diruz lagunduko gero, diruz lagundutako jarduera amaitutakoan, Sestaoko Udalaren jabetza izatera pasako liriteke.

Ondorioz, diru-laguntzen erakunde edo pertsona eskatzaileek udalari aurkezten dizkieten gastuen aurrekontuetan ez dituzte kontzeptu horiengatik gastu-partidak sartuko.

3. Diruz lagundutako jardueren azpikontratazio-gastuak onartuko dira hurrengo baldintzetan:

Pertsona edo erakunde onuradunak azpikontratatu du hirugarrenarekin diru-laguntzaren xede den jardueraren egikaritze osoa edo partziala hitzartzen duenean. Ez da azpikontrataziotzat joko diruz lagundutako jarduera berez gauzatzeko pertsona edo erakunde onuradunak dituen gastuak kontratatzea.

4. Oro har, eman beharreko diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa kirol-elkartek edo kirolariak aurkeztu ostean, aurrekontuaren kostuari dagokion 100eko 100 izango da.

5. Emandako diru-laguntzen zenbatekoak, bakarrik edo bestelako administrazio edo erakunde publiko ala pribatuek eman ondoren, beste diru-laguntza, laguntza edo edozein motako diru-sarrera ekonomiko batzuekin batera, ez du inola ere erakunde edo pertsona onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua gaudituko. Justifikatu diren diru-sarrerak eta gastuak aztertutakoan, gastuen gainean diru-sarrera gehiago baleude, Sestaoko Udalak emandako diru-laguntza soberakin horretan murriztu beharko litzateke.

**Laugarrena. – Subjektuak**

1. Deialdi honetan araututako diru-laguntzen onuradunak irabazi-asmorik gabe jarduten duten pertsona fisikoak eta irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoak, publikoak edo pribatuak, izan daitezke, jarduera fisikoa eta kirolen eremukoa garatzen badute eta, gainera, hurrengo baldintzak betetzen badituzte:

- 1) Pertsona fisikoak Sestaoko udalerrian errolatuak egongo dira gutxienez diru-laguntzaren deialdia argitaratu baino urtebete lehenago.
- 2) Pertsona juridikoak legez eratuak egongo dira eta elkarteak, gainera, Eusko Jaurlaritzako Erregistro Berezetan edo Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuak azalduko dira.
- 3) Pertsona juridikoen estatutuetan irabazi-asmorik ez dutela adieraziko da.
- 4) Pertsona juridikoek zerga eta sozietatearen egoitza Sestaoko udalerrian kokatua izango dute.
- 5) 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, diru-laguntzei buruzko orokorrak, 13. artikuluan xedatutakoari jarraiki, diru-laguntzak lortzeko debekurik ez dute izango.
- 6) Lehendik Sestaoko Udalak emandako diru-laguntzen justifikazio egokia eguneratua izango dute. Ildo horri jarraiki, ez zaio diru-laguntzarik emango pertsona edo erakundeari, aurretik beste udaleko diru-laguntzaren bat justifikatzeko badu eta deialdi honetan eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan justifikatzeko epea iraungita badago.
- 7) Zuzenbide publikoko zerga-obligazioak eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak eguneratuak izatea.

**Bosgarrena. – Balorazio-irizpideak**

1. Proposatutako pertsona edo erakundeek diru-laguntza jasotzeko honako baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Deialdi honen bigarren baldintzak aurrez ikusitako jardueraren batekin bat etortzea.
- b) Udal interes publikoa lortzen laguntzea eta eremu horietan Sestaoko Udalaren esku-hartzea osatu eta ordezkatzeta.

2. Azaldutako baldintza guztiak betetzen ez badira, kirol-erakundeak ala kirolariak ez du diru-laguntzarik jasoko.

3. Balorazio-irizpideak. Kirol-elkarteak eta banakako kirolariak hurrengo irizpide eta puntuak aplikatuta balioetsiko dira:

- a) Kirol-elkarteen alde diru-laguntza baloratzeko irizpideak: Guztira 100 puntu.
  - 1) Kirol-sustapenerako jarduerak garatzea: gehienez 25 puntu.

Irizpide honetan balioztatzen diren alderdiak:

    - Kirolaren eremuan erakundearen garrantzia:
      - Behe-mailako kategoriak (eskoletakoak edo federatuak) izatea: 10 puntu.
      - Beheko bi kategoria edo gehiago izatea: 2,5 puntu.
      - Bi sexuetakoa kategoriak izatea: 2,5 puntu.
    - Autonomia Erkidegotik kanpoko lehiaketetan parte hartzea:
      - Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo lehiaketa ofizialetan eta beheko kategoriatan parte hartzea: 5 puntu.
      - Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo beheko kategorietako bi lehiaketetan edo gehiagotan parte hartzea: 2,5 puntu.
    - Eskola-adinean dauden kirolarientzat sustapen-programak garatzea: 2,5 puntu.



- 2) Kirol-elkarteak duen kirolari federatuen kopurua: gehienez 35 puntu.
    - 160 kirolari baino gehiago: 35 puntu.
    - 140 eta 159 kirolari artean: 30 puntu.
    - 120 eta 139 kirolari artean: 25 puntu.
    - 100 eta 119 kirolari artean: 20 puntu.
    - 80 eta 99 kirolari artean: 15 puntu.
    - 40 eta 79 kirolari artean: 10 puntu.
    - 20 eta 39 kirolari artean: 5 puntu.
    - 1 eta 19 kirolari artean: 2,50 puntu.
  - 3) Udalaren Kirol Zerbitzuaren ekimenetan lankidetzaz: gehienez 15 puntu.
    - Kirol-hastapenerako eskola du: 5 puntu.
    - Kirol-sustapenerako jardueraren batean lankidetzaz dihardu: 5 puntu.
    - Kirol-partaidetzari buruzko jardueraren batean lankidetzaz dihardu: 5 puntu.
  - 4) Kirol-instalazioak erabiltzen ditu edo bere jabetzakoak dira: gehienez 10 puntu.
    - Bere kirol-instalazioak ditu edo udalaren kirol instalazioak erabiltzen ditu harpidedun den neurrian: 10 puntu.
    - Noizean behin udalaren kirol-instalazioak erabili eta ordaintzen ditu ala kirolariaren harpidedun-txartela du: 5 puntu.
  - 5) Euskara erabiltzea: gehienez 5 puntu.
    - Titulu egokiaren bidez ziurtatu ostean, euskara ezagutzen duten kirol monitoreen %10 du: 0,5 puntu (gehienez 5 puntu).
  - 6) Kirol jarduerak edo programak garatzen ditu honakoak sustatzeko:
    - Baztertzeko arrisku handiena duten biztanle-sektoreen gizarteratzea: gehienez 5 puntu.
  - 7) Kirolari emakumeen ehunekoak: gehienez 5 puntu.
- b) Pertsona fisikoen alde diru-laguntza emateko balorazio-irizpideak
- Gehienez 2.250,00 euro utziko dira kirolari onuradunen artean banatzeko.
- Balorazio-ordena Kirolen zuzendaria kirolarien proposamena aurkeztu ondoren zehaztuko da. Gainera, kirolariak garatutako jardueraren tokiko, eskualdeko, nazioko edo nazioarteko garrantziaren irizpideei erreparatuko zaie.
- Hala eta guztiz ere, pertsona fisikoen aldeko diru-laguntza oso-osorik edo atalen batean ematen ez bada, zenbatekoa kirol-elkarteak diruz laguntzeko partidan sartuko da.

**Seigarrena. — Dokumentazioa**

1. Diru-laguntzaren eskaerak deialdi honen I. eranskin gisa dagoen eskaeraren eredu ofizialean aurkeztuko dira. Nolanahi ere, behar bezala osatuko da eta interesdunei Las Llanas udal kiroldegia bulegoetan (Sestaoko udalerriko Las Llanas zumarkalea, 12) entregatuko zaie.
2. Eskaerari hurrengo dokumentazioa erantsiko zaio:
  - a) Eskaerak pertsona fisikoek eginak badira: nortasun agiri nazionalaren fotokopia. Eskatzaileak pertsona fisikoak izanez gero: zerga identifikazio kodearen fitxari dagokion; estatutuen fotokopia; diru-laguntzaren eskaera sinatzen duen pertsona fisikoaren nortasun agiri nazionalaren fotokopia eta diru-laguntzen deialdian erakunde eskatzailearen izenean nahiz horri ordezkatzuz jardun dezakeela egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia (deialdi honen I. eranskinean zehaztutako ereduarekin bat). Elkarteek, aurrekoek gain, Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erre-



gistro Orokorrean edo Berezian inskribatuak daudela adierazten duen egiazta-pen-dokumentuaren fotokopia aurkeztuko dute.

- b) Hartzekodunaren fitxa, behar bezala osatua, bidezkoa den diru-laguntza ordaintzeko (deialdi honen VI. eranskinean zehaztutako ereduarekin bat).
- c) Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrean, Sestaoko Udalaren eta eskatzailearen (pertsona fisikoa edo juridikoa) egoitzari dagokion Lurralde Historikoko Foru Ogasunaren ziurtagiriak, eskatzaileak erakundeen obligazioak eguneratuak dituela ziurtatzen dutenak. Ziurtagiriak deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzearen ondorengoak izango dira.

Eskatzailea pertsona juridikoa izanda, zuzenbide publikoko zerga-obligazioez salbuetsia badago, salbuespenaren ziurtapen-dokumentazioa aurkeztu behar du.

- d) Pertsona edo erakunde eskatzailea izaera behereko diru-laguntzen edo laguntzen esparruan hasitako itzultze- edo zehapen-prozeduran murgildua ez egotearen adierazpena (deialdi honen V. eranskinean zehaztutako ereduarekin bat).
- e) 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, diru-laguntzei buruzko orokorrak, 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, pertsona edo erakunde eskatzailea diru-laguntzak lortzeko debekuetan murgildua ez egotearen adierazpena (deialdiko V. eranskinean zehaztutako ereduarekin bat).
- f) Pertsona edo erakunde eskatzailearen adierazpena, diruz lagundutako jarduera edo proiektua garatzean irabazi-asmorik ez duela azaltzen duena (deialdiaren V. eranskinean zehaztutako ereduarekin bat).

3. Baldintza honen 2. puntuko a) atalean aipatutako dokumenturen bat jada lehen-dik Sestaoko Udalari entregatu bazaio, bost urte baino gehiago igaro ez badira eta aurkeztu zenetik aldaketarik ez badago, pertsona edo erakunde eskatzailea berriz aurkezteaz salbuetsia egongo da. Dena den, ustezko horietan pertsona edo erakunde eskatzaileak berriaz adieraziko du dokumentuen aurkezpen-data eta prozedura haren helburua. Gainera, aldaketarik ez dutela izan aipatuko da.

#### **Zazpigarrena. — Eskaerak eta epeak**

1. Eskaerak eta eskatutako dokumentazioa Sestaoko Udaleko erregistro orokorrean, udaletxeko eraikinean (Sestaoko udalerrian, Aizpuru kaleko, 1. zenbakian), aurkeztuko dira, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

2. Pertsona fisikoaren kasuan, eskaera eskatzaileak sinatuko du. Eskaera pertsona juridikoak aurkezten badu, ordezkaritza duenak sinatuko du.

3. Eskaerak aurkezteko epea 2019ko irailaren 1etik irailaren 27ra bitartekoa izango da.

4. Epe baliodunez kanpo aurkezten diren eskaerak ezetsiko dira, bestelako izapiderik gabe, eta deialdi honetako diru-laguntzak emateko prozeduraren ebazpenean hala adieraziko da.

5. Eskaerak aurkeztuz gero, deialdi honetan eta Sestaoko Udalak diru-laguntzak emateko udal-araudian dauden baldintza guztiak oso-osorik eta berriaz onartuko dira.

6. Eskaerak erabat osatuak ez badaude edo nahitaezko dokumentazioa ez badute, pertsona edo erakunde eskatzaileari eskatuko zaio hamar egun baliodunen epean hutsa zuzen dezan edo nahitaezko dokumentuak erants ditzan. Ildo horri eutsiz, azalduko zaio hala egiten ez badu, eskaera bertan behera egintzat joko dela. Nolanahi ere, uko egite hori berriaz aipatuko da deialdi honen diru-laguntzak emateko prozeduraren ebazpenean.

#### **Zortzigarrena. — Izapideak, ebazpena eta errekurtsioak**

1. Eskaerak Sestaoko Udaleko Kirol Zuzendaritzak izapidetuko ditu.

2. Eskaerak jasotzen direnean, Kirol Zuzendaritzak pertsona eskatzaileek deialdian eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu dutela egiaztatuko du. Sestaoko Udalak



diru-laguntzak emateko udal-ordenantza arautzailearen 8. artikuluko 6. atalean aurrez ikusitako ustezkoren bat gertatzen bada, pertsona edo erakunde eskatzaileari eskatuko zaio, hamar egun baliodunen epean hutsa zuzen dezan edo nahitaezko dokumentuak erants ditzan. Horrez gain, hala egiten ez badu, eskaera bertan behera egintzat joko dela adieraziko zaio.

Halaber, aurkezten diren jarduerak eta proiektuak behar bezala balioztatzeko, Zuzendaritzak pertsona edo erakunde eskatzaileei eska diezazkieke beharrezkotzat jotzen dituen argibideak. Helburua eskaera zer baldintzatan formulatzen den hobe ezagutzea da.

Jarduera horiek amaitutakoan, deialdian parte hartu duten erakundeei eta diru-laguntzak eskatzen dituzten proiektu edo jarduerari buruz Kirol Zuzendaritzak txostena egingo du behin-behineko ebazpen-proposamenarekin. Hala, erakundeek eta jarduerak diru-laguntza jasotzeko baldintzak betetzen al dituzten azalduko du, deialdiko oinarriak aplikatu ostean, bidezkoa litzatekeen diru-laguntzarekin batera.

3. Behin-behineko ebazpena egiten denean, Gaztedi eta Kiroletako Informazio Batzordeak organo emaileari behin betiko ebazpen-proposamena egingo dio. Proposamen hori Kirol Zuzendaritzak egindako txostenarekin bat etor daiteke edo ez. Dena den, arrazoitu beharko da eta emateko deialdian xedatzen diren baldintza eta irizpideei erreparatu beharko zaie.

4. Tokiko Gobernu Batzarrak, organo elkargokideak egindako behin betiko ebazpen-proposamena ikusirik, prozedura ebatziko du eta behin betiko ebazpen proposamenaren ildo beretik ala desberdinetik joan daiteke. Hala ere, bigarren kasuan, arrazoia adierazi beharko da eta ebazpena deialdiaren irizpideak aplikatzean eta Sestaoko Udaleko diru-laguntzak emateko udal-ordenantza arautzailean justifikatu ere bai.

Prozedura ebatztean eskatzaile bakoitzari emandako diru-laguntzak eta baldintzak (hala nola, diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa, egikaritzea justifikatzeko modua eta epea, aurkeztu beharreko dokumentazioa, etab.) adieraziko dira, ezetsitako eskaerekin eta bertan behera utzitakoekin batera. Azkeneko bi kasuetan, erabakiak arrazoituko dira.

5. Diru-laguntzak ezestea bidezkoa izango da, pertsona edo erakunde eskatzaileak deialdi honetan xedatutako baldintzak betetzen ez dituenean. Era berean, diru-laguntzak ezetsiko dira, dagozkion partidetan kreditu eskuragarriak agortzeagatik.

6. Diru-laguntzak eman edo ezesteko ebazpena eskatzaileei jakinaraziko zaie eta aurka bidezkoak diren errekurtsoak azaldu ere bai.

Ebazpena Sestaoko Udaleko iragarkien oiholtzan erakutsiko da hilabete batez, deialdi honetako diru-laguntzak emateko prozeduraren ebazpenari buruzko laburpena eta ebazpena erakutsiko den tokia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Diru-laguntzei buruzko lege orokorrak 18.3. artikuluan aipatutako ustezkoe-tan, ez da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko eta udalen iragarkien oiholtzan zintzilikatzean 1/1982 Lege Organikoak, maiatzaren 5ekoak, ohore, intimitate pertsonal eta familiar nahiz norberaren irudiaren eskubideari dagokion babes zibilari buruzkoak, xedatutakoa errespetatuko da.

Emandako diru-laguntzei buruzko informazioa Sestaoko Udalak Diru-laguntzei buruzko Datu Base Nazionalari bidaliko dio.

7. Erakunde onuradunek emandako diru-laguntzak onartu dituztela ulertuko da, diru-laguntzak emateko erabakiaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita, hamar egun baliodunen epean Sestaoko Udalak horien aldetik diru-laguntzari uko egiten diotela adierazpenik jasotzen ez badu.

#### **Bederatzigarrena. — Onuradunen betebeharrak**

1. Diru-laguntzen pertsona edo erakunde onuradunek hurrengo betebeharrak izango dituzte:

- a) Deialdi honetako arauak eta diru-laguntzak ematen dituen udal-ebazpenean zehaztu daitezkeen gainerako baldintzak zorrozki betetzea.
- b) Diru-laguntza emandako helburura bideratzea.



- c) Diruz lagundutako jarduera garatzeko beharrezkoak diren baimen publiko edo pribatuak lortzea; indarreko legezko araudia betetzea, diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak antolatu eta ospatzeko eragiten badu; beharrezkoak diren erantzukizun zibilaren eta istripuen aseguru polizak sinatzea; eta, laburbilduz, diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak egitetik sor daitezkeen erantzukizun guztiak onartzea. Ildo horri eutsiz, Sestaoko Udala edozein erantzukizunez salbuetsia geldituko da.
- d) Sestaoko Udaleko Kirol Zerbitzuak egin behar dituen egiaztapen-jarduerari men egitea eta diruz lagundutako jarduera edo proiektuak direla-eta, eskatzen den informazio osagarria eskuratzea.
- e) Sestaoko Udalaren lankidetzaren berariaz idatzia uztea. Hala, diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak zabaldu, hedatu eta argitaratzeko erabiltzen diren bitarteko, idatzi eta ikus-entzunezko guztietan Servicio Municipal de Deportes / Udala Kirol Zerbitzua edo Sestao Kirolak azalduko da. Hedapen-, zabaltze- eta argitaratze-bitartekoak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egingo dira.

**Hamargarrena. — Justifikazioa**

1. Tokiko Gobernu Batzarrak diru-laguntza onartzen duenean, erakunde onuradunak dokumentu-justifikazioa aurkeztu beharko du, laguntzari jomuga egokia eman dio la ziurtatzeko. Gehienez 15 egun izango ditu, laguntzaren jakinarazpena hartzen duen unetik zenbatzen hasita. Justifikazioa onartutakoan diru-laguntza behin betiko ordainduko da.
2. Justifikatzeko ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar da:
  - a) Urtean zehar edo kirol-denboraldian jarduera gauzatzearen ondorioz izandako guztizko diru-sarrera eta gastuen balantze ekonomiko orokorra.
  - b) Egindako gastuen frogagiri originalak, diru-laguntzaren denboraldiari badagoz-kiro, diru-laguntza modura emandako zenbateko guztia osatu arte. Frogagiriak fakturak edo froga-balioa duten bestelako dokumentu baliokideak izango dira, merkataritza-trafiko juridikoan baliozkoak badira.
3. Frogagiriak halaberrez bat etorriko dira diru-laguntza emateko helburuak eta jarduerak betetzean sortutako gastuekin, aurretiazko eskaerari jarraiki. Beraz, ez dira frogagiritzat onartuko helburu desberdinak betetzeko egindako gastuak.
4. Pertsona edo erakunde onuradunak aurkeztu behar dituen justifikazio-dokumentu originalen gordailuzaina izan behar badu, aurkezteko unean arrazoia azalduko du, dokumentuen fotokopiarekin batera eta udal zerbitzuek alderatu ostean, dokumentu originalak Sestaoko Udalak zigitatuko ditu, gastu horiek udalak diruz lagundu dituela idatziz uzteko. Modu horretan, pertsona edo erakunde onuradunari itzuliko zaizkio.
5. Gastuen egiaztapen-dokumentazioa justifikazio gisa onartzeko, diru-laguntzaren denboraldiari dagokion data izango du.
6. Pertsona edo erakunde onuradunek jarduerak azpikontratatzeari justifikazio-dokumentuak onartuko dira deialdi honetan xedatutako gehieneko muga barruan.
7. Diru-laguntzari emandako jomugaren justifikazioa aurkezteko epeak diru-laguntzak ematen dituen ebazpenean zehaztuko dira, baina inola ere ez du gaindituko hilabetea, 2018. ekitaldia amaitzen denetik zenbatzen hasita, udal ordenantzak 11.6. artikuluan xedatutakoaren arabera.
8. Denboraldi horretan erakunde edo pertsona onuradunak dokumentu-justifikazioa aurkezten ez badu ala oso-osorik edo zati batean onartzen ez bada, onuradunari, dagokionarekin bat, jasotako diru-laguntza osoa ala horren zati bat erreklamatzeari ekingo zaio.

**Hamaikagarrena. — Beste baldintza batzuk**

*Lehenengoa:* Diru-laguntzen ordainketa, itzulera, zehapen-araubide eta beste edozein alderdiri dagokionez, deialdi honetan aurrez ikusi ez bada, diru-laguntzak izapidetu eta emateko prozedura arautzen duen Sestaoko Udalaren araudian xedatutakoa aplikatuko da.



tuko da, diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege orokorraren arauekin batera, aplikagarriak izanez gero.

*Bigarrena:* Kirol-elkarte eta kirolarien alde emandako diru-laguntzak honako moduan izendatutako partidaren kargura emango dira: 3410 programa, 48102 azpikontzeptua. Esleipenak muga gisa 38.500,00 euro izango ditu.

*Hirugarrena:* Deialdi honek aipatzen dituen diru-laguntzak ekitaldian betebeharrak finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa egotearen arabekoak izango dira.

*Laugarrena:* Eskatutako dokumentazioa errazago aurkezteko, hurrengo ereduak erantsi dira:





## I. ERANSKINA

**2019. URTEAN EDO 2018/2019 DENBORALDIAN KIROLAREN EREMUAN JARDUERAK EGITEKO SES-  
TAOKO UDALARI DIRU-LAGUNTZA EKONOMIKOA ESKATZEA****Erakunde eskatzailearen datuak**

- 1.1. Izena: .....
- 1.2. IFZ: .....
- 1.3. Sozietatearen egoitzari dagokion helbidea Euskal Autonomia Erkidegoan: .....
- 1.4. Erakunde eskatzailearen helbidea jakinarazpen ofizialetarako: .....
- 1.5. Telefono-zenbakia: .....
- 1.6. Faxe: .....
- 1.7. Posta elektronikoaren helbidea: .....
- 1.8. Eratze-data: .....
- 1.9. Euskal Autonomia Erkidegoko erregistro egokian inskribatze-data: .....
- 1.10. Eskaera sinatzen duen pertsona ahaldua eta erakundearen duen kargua (erantsi ahalordea egiaztatzen duen dokumentua): .....
- 1.11. Jardueren pertsona arduraduna eta harremanetarako telefonoa: .....
- 1.12. Gizarte Segurantzako Lurralde Diruzaintzaren eta Foru Ogasunaren ziurtagiria, erakunde guztiekin eguneratua dagoela ziurtatzen duena. Ziurtagiriak deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzearen ondorengoak izango dira.



## II. ERANSKINA

**KIROL-ELKARTEEK GARATUTAKO  
JARDUERAREN DESKTRIBAPEN-DOKUMENTUA**

2018/19 denboraldian edo 2019. urtean garatutako jarduerari buruzko memoria aurkeztuko da eta gutxienez hurrengo atalak izango ditu:

- 2.1. Kirolari partaideen kopurua, kategoriak eta sexua zehaztuta.  
Erakunde bakoitzean kirolari federatuen eta eskolatuen zerrenda erantsiko da, federazioak edota Bizkaiko Foru Aldundiak egin ondoren.
- 2.2. Parte hartu duten lehiaketak
- 2.3. Egindako kirol-sustapenaren jarduerak.
- 2.4. Udalaren Kirol Zerbitzuekin lankidetzan garatutako jarduerak.
- 2.5. Jarduerak garatzeko erabilitako instalazioak.
- 2.6. 2020. urterako edo 2019/20 denboraldirako proiektuak
- 2.7. 2019. urteko edo 2018/19 denboraldiko aurrekontuaren laburpen ekonomiko arina.

**III. ERANSKINA****KIROLARIEK BANAN-BANAN GARATUTAKO  
JARDUEREN DESKRIBAPEN-DOKUMENTUA**

2018/19 denboraldian edo 2019. urtean garatutako jarduerari buruzko memoria aurkeztuko da eta gutxienez hurrengo atalak izango ditu:

- 2.1. Kirolariaren datu pertsonalak.
- 2.2. 2019. urtean edo 2018/2019 denboraldian jardueraren eta lorpenen helburua.
- 2.3. Jardunarengatik sortutako gastuen laburpena; beste erakunde publiko edo pribatu batzuen eskutik jasotako laguntza ekonomikoak zehaztuko dira.
- 2.4. 2020. urterako edo 2019/20 denboraldirako proiektuak.



## IV. ERANSKINA

**ESKAERARI ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA**

Aipatu eta erantsi diru-laguntza hauen deialdiaren seigarren baldintzan eskatzen den dokumentazio guztia. Dokumenturen bat jada lehendik Sestaoko Udalari entregatu bazaio, bost urte baino gehiago igaro ez badira eta aurkeztu zenetik aldaketarik ez badago, pertsona edo erakunde eskatzai-lea berriz aurkeztez salbuetsia egongo da. Dena den, ustezko horietan pertsona edo erakunde eska-tzaileak berariaz adieraziko du dokumentuen aurkezpen-data eta prozedura haren helburua. Gainera, aldaketarik ez dutela izan aipatuko da.

.....n, 2019ko .....(a)(r)en ...(e)(a)n.

Sin.: ..... jauna/andrea



V. ERANSKINA

**DIRU-LAGUNTZAK LORTZEKO DEBEKUAREN USTEZKOETAN  
ERAKUNDE ESKATZAILEA MURGILDUA EZ EGOTEAREN ADIERAZPEN-EREDUA**

..... jaun/andreak, ..... NAN zenbakiarekin,  
..... erakundearen izenean (2012. urtean jarduerak egiteko diru-laguntza ekonomikoak ematea eskatzeari begira aurkeztutako dokumentazioak egiaztatzen den moduan), adierazten du erakunde horrek lehendik bestelako udalaren diru-laguntzarik ez duela justifikatzeko; 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, diru-laguntzei buruzko orokorrak, 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, diru-laguntzak lortzeko debekurik ez duela; eta Sestaoko Udalari eskatutako diru-laguntzarekin jarduerak garatzean irabazi-helbururik ez duela.

.....n, 2019ko .....(a)(r)en ...(e)(a)n.

Sin.: ..... jaun/andrea



VI. ERANSKINA

HARTZEKODUNAREN FITXARI BURUZKO EREDUA

**1. Erakunde eskatzaileak bete beharreko datuak**

1.1. Erakundearen izena: .....

1.2. IFZ: .....

1.3. Helbidea: .....

1.3. Udalerria: .....

1.5. Posta kodea: .....

Sinaduraren tokia eta data: .....

Sin.: .....



VII. ERANSKINA

**BANKU-ERAKUNDEAK BETE BEHARREKO DATUAK**

Ziurtatzen dugu goian izendatutako erakundea hurrengo kontuaren titularra dela:

- Bankua: .....
- Agentzia: .....
- Kontuaren zenbakia (24 IVAN): .....
- Udalerria: .....
- Posta kodea: .....
- Sinaduraren tokia eta data: .....

Banku-erakundearen sinadura eta zigilua